



❖ BURUNTZALDEKO UDALAK

Euskadiko Kutxak euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena sinatu du

Hitzarmena Hernani, Astigarraga, Lasarte, Urnieta eta Andoaingo Udalekin adostu da.

ATZO sinatu zuten Euskadiko Kutxako eta Buruntzaldeko bost Udalerrietako arduradunek (Hernani, Lasarte, Astigarraga, Andoain eta Urnieta) erakunde honetan euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena, Donostian.

Lau urterako hitzarmena da eta honen bidez bost Udalerrien eta Euskadiko Kutxaren

arteko harremanak euskaraz izatea da helburua. Modu berean Euskadiko Kutxa bezeroei euskaraz zuzenduko zaie lehenik eta zerbitzuak, kartelak eta gainontzeko publi-

zitate eremuak euskara hutsean diseinatuko dituzte. Barne agiriak ere euskaraz idaztea dute asmoa, hitzarmen honen bidez. Langileak kontratatzeke garaian euskara jakiteari

garrantzi berezia emango dio erakunde honek eta heziketa ikastaroak sustatuko ditu.

Euskaldunen baliabideak

Hitzarmen honekin Buruntzaldeko Udalek herritar euskaldunei baliabideak eman nahi dizkie beren hizkuntzan adierazteko, euskarazko komunikazioa sustatuz. ||

Euskadiko Kutxa bezeroei euskaraz zuzenduko zaie lehenbizi eta publizitate eremuak euskara hutsean diseinatuko ditu.

◆ ERREMONTA

Altuna I-Eizagirre garaipenik gabe etxera dijoaz Faustino torneoan

Galarretan larunbatean jokatu zen partiduan Altuna I-Eizagirrek 40-27 galdu zuten Ezkurra eta Ionon kontra. ||

◆ FUTBOLA

Labaien torneoko partiduak gaur

Labaien torneoko futbol partiduak jokatu dira gaur Zubipen. Arratsaldeko 17:00etan R. Sociedad Añorgaren kontra arituko da eta 19:00etan Hernani-Lengokoak partidua ikusteko aukera izango da. ||

❖ SAHARA

Janari bilketa antolatzeke bilera

Saharara bidaltzeko janari bilketa laster hasiko da eta hori guztia antolatzeke bilera izango da gaur Biterin, 19:30etan. Bileran irekia da eta herritar guztiak parte hartu dezakete bertan. ||

❖ ASTIGARRAGA

Bularreko minbizia hizketa gai, gaur

Astigarragako Udalak eta Katxalin elkarteak antolatuta hitzaldia izango da gaur *Detección temprana del cáncer de mama* izenarekin. Hitzaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da Astigarragako kultur etxean. ||

❖ ELKARTASUN DENDA

Elkartasun denda zabalik Kale Nagusian

Joan den larunbatean zabaldu zuten Elkartasun Denda Kale Nagusian, aurten lehenengo aldiz. Denda goiz eta arratsalde egongo da zabalik eta bertan lagundu nahi duen guztiarentzat zerrenda jarri dute Garin tabernan. ||

Bihar, Santo Tomas... txistorra eta ogia

Joan den igandean lehenengo ospakizunak izan ziren Hernaniko hainbat lekuetan.

AURTEN astegunez tokatu da hilaren 21a, Santo Tomas eguna, horregatik, Hernaniko hainbat lekutan jai aurreratzea erabaki zuten. Modu horretan, igandean txistorra jan eta sagardoa edateko aukerarik ez da falta izan herrian. Orkologan, urtero ohi denez, txistorra jana izan zen eguerdian eta arratsaldean berriz kontzertuak, giro paregabea. Plaza Berrian erromeria polita antolatu zuten eta dantzan ere animatu San Joan Konpartsaren eskutik. Sorgintxulon eguerdi partean txistorra jan eta sagardoa edateko aukera izan zuten

Inmaculada ikastetxean, urtero bezala, Santo Tomas azoka antolatu dute biharko.

baita ere, auzokoek eta kanpokoek.

Bihar, Santo Tomas eguna

Santo Tomas festak bihar du jarraipena, santuaren egunean. Gutxi izango dira txistorra jan gabe geratuko direnak, lanean edo ikastetxean. Inmaculadan esaterako urtero bezala azoka egingo dute 10:30etatik 12:00etara, txistorra, taloak jateko eta barazkiak salgai egongo dira, gainera



Orkologan egun osoko jai antolatu zuten igandean.

Santo Domingora dirua bidaltzeko *Merkatu Txikia* izango da eta bidezko merkataritzako postu bat. Inmaculadatik herritar guztiak gonbidatu dituzte bertara. Gazte Txokoan, Zaharren Egoitzan eta Jubilatutxan ere txistorra jana izango da, azken

honetan udazkeneko karta jokoetako txapelketaren trofeoak banatuko dituzte gainera, goizeko 11:00etan hasita.

Bestalde, aurtengo Bertsolataren barruan Kale Antzerkia izango da herrian barrena txistorraren inguruan, arratsalde-


ETXE OMENAK, S.A.
SALGAI:
Trasteroak eta lokalak
Antziolan.
Informazio gehiago:
☎ 943 42 95 21


mikel armendariz
prolektu eta instalazio elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

Allianz 
ASEGURUAK
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Telf.: 943 557 326
656 735 109

Hernaniko emakumeen historiari buruzko liburua
Edozeinentzako opari polita...
Lete liburu dendan salgai.


☎ TELEFONDAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 + FARMAZIAK 1 Egunez: Etxebeste Elcano 2 - 943 552087 1
Gauetz: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Egun hasieran behe lainoak izango ditugu eta goizaldean izotza. Zerua garbi izango dugu eta eguzkia nagusituko da. Hala ere temperatura ez da asko igoko eta 10°C inguruko maximoa izango dugu.
BIHAR Asteaskeneko eguraldiak ez du aldaketarik ekarriko. Berriz zerua urdin eta eguzkia ikusiko dugu. Temperatura maximoa pixka bat igoko da.

❖ BERTSO TXAPELKETA NAGUSIA

Maialen Lujanbio: "Sentsazio arraroa izan dut egun guztian"

Igandeko finalaren ostean zortzi bertsolarien prentsaurrekoa izan zen. Aitor Mendiluze: "Batez ere harro sentitzen naiz hau guztiaz".

PRENTSA aretora Mendiluze izan zen azaltzen lehena, gero beste zazpiak, Iñaki Murua-rekin batera. Egun osoan buruari eragiten ibilita ere, indarra izan zuten kazetarien galderei erantzuteko; azken tramitea, ondorengo festa eta ospakizunak hasi aurretik.

Bertsozale Elkarteko lehendakaria, Iñaki Murua, izan zen hitz egiten lehena, bertsolariei zoriondu zien "egun zoragarria pasarazi digutelako", modu berean epai mahaikideak ere zoriondu zituen Muruak "egindako lanagatik", baita gai jartzaile eta gai emaileak ere.

Egaña hurrengo txapelketan izango ote?

Andoni Egañak hartu zuen gero hitza. Txapeldunak adierazi zuenez ez du batere sufritu txapelketan: "Saiatu naiz errimek eta neurriek ez gain hartzen eta lagunez eta giroaz gozaten", esan zuen. Datorren txapelketarako asmoez galdetuta Egañak azaldu zuen oraindik ez dakiela zer egingo duen "pare bat urte behar ditut pentsatzeko, orain ezin

J. Maia: Zortzigarren 13.000tik ez da postu txarra.

dut ezer esan".

Maialen Lujanbio sentsazio "arraroarekin" izan zen egun guztian, nekatuta, nerbioengatik agian eta "ezin batean", hernaniarrak adierazi zuenez "gutxitan izan dut horrelako sentsazioa tablatuan". Txapelketaren inguruan adierazi



Arratsaldeko saioaren ostean izan zen prentsaurrekoa.

zuen "eskaparate haundi bat" dela eta berebiziko garrantzia duela, baina bertsolaritzaren oinarria "asteroko plaza" dela ere adierazi zuen.

Aitor Mendiluzek balazio "gazi-goza" egin zuen bere lanari dagokionez. Esan zuen "lasai" atera zela oholtzara eta modu berean harro sentitzen zela lagunekin eta bertan kantatzeagatik.

Iturriaga eta publikoaren olatua

Iturriagak, txapeldunordeak, azaldu zuen giro berezia izan zela igandekoa "oso plaza" eta azaldu zuenez publikoak egindako olatuak ez ziren bertsolaritzaren futbolizazio bat izan "beste zerbait izan zen, guk oso gogor senti-

tu dugu giro hori".

Amets Arzallusek berriz, azaldu zuen nahiko lasai egon zela saio osoan eta kosta egin zitzaiola momentuaren ga-

Aitor Mendiluze:

"Harro sentitzen naiz lagunekin eta bertan kantatzeagatik, harro batez ere".

Maialen Lujanbio:

"Gauza bat dira emaitzak eta bestea norbere sentsazioa. Ezin esan nerea sentsazio ona izan denik, arraroa izan da. Nekatuta egon naiz nerbioengatik".



Giro aparta izan zuten AEK-n ostiralean.

'Mafia taldea' AEK-ko pintxo lehiaketan irabazle

JOAN den ostiralean pintxo lehiaketa antolatu zuen AEK-k Zilegi Eskolen barruan eta inoiz baino parte hartzaile gehiago izan ziren bertan, 100 pertsona baino gehiago. *Mafia taldeak* irabazi zuen lehiaketa


txipiroi bidezko pintxo batekin *Italiko Purua* deiturikoa. Epaimahai aritu ziren Ibai Goñi herritarren ordezkari gisa, ostalarien aldetik Larreagaingo Ixabel eta Rosa Mendiluze ikasle ohia. ||

† FLORENCIO URKIJO

URKIJO

JAUNA
Atzo hil zen, 79 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartu ondoren
- Goian bego -

Emaztea: Gabriela Miner Atorrasagasti; seme-alabak: Leandro, Xabier eta Maite Rosillo, Ima eta Luis Maria Barrutia, Juli eta Koldo Zilbeti, Joxe eta Axun Etxebeste, Ione eta Angel Zinkunegi; bilobak: Xiker, Elixane, Xabier, Ekaitz, Unai, Estibalitz, Irati, Jasone, Mikel eta Luken; anai-arrebak: Mari, Higinio, Ascen eta Mari Carmen (†); ezkon anai-arrebak, ilobak, lehen-gusua eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN**, Florida Auzoko **JOSE LANGILE DONEA-REN** parroki elizan, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2005eko abenduaren 20an

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Kotxea salgai. Peugeot 206. 115.000 km ditu eta 1999koa da. **Prezioa 4000 €.** Interesatuak deitu: 618 816 960

25 urteko Administrataria lan bila. Deitu: 660 580 862

Urrezko katea galdu nuen, larunbatean, Hernaniko kaxkoan. Familiako errekueroa da. Norbaitek aurkitu badu, deitu: 943 552767

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Deitu: 656 78 64 15

Iturriaga Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Etxe bat salgai Gudarien plazan. 50 m2 ditu. Interesatuak deitu: 679 10 75 06 (Arratsaldeko 13:30etatik 15:30etara)

ezkati
ileapaindegia
Iturregi, 4
Hernani
943 55 65 56